Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero 426

Uztailak 15, 2022

“Zati garrantzitsu bat ezagutza da, baina bakoitzaren trebetasuna ere sartzen da jokoan”

Yon Gallardo, izozkigilea

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4-5 Dies Oiassonis
6 Yon Gallardo
7 Bidasoa Folk
8-9 Kirolak: Udako kirol ikastaroak
10 Oiassotik Irunera
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: We Are Mer
14 iGazte
15 Agenda

Argazkia: Estudio Gover

- Adinekoentzako Egoitzak
- Mugaz gaineko Eguneko Zentroak, 365 egunez, Irun Hondarribia eta Hendaiarainoko garraio zerbitzuarekin
- Psikogeriatria unitateak
- Apartamenduak

Eta Caser Cuidadosekin, etxean behar dituzun zaintza edo laguntza zerbitzuak kudeatzen dizkizugu

caser residencial

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - Irun

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA

900 103 348
caseresidencial.es

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

309

2155

27455

1922ko uztailaren 9an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte hirian albiste ziren gertaerak islatzen ditu. Aldizkariko lehen idatzian kontatzen da "Amoña" dantzariak laurogei urterekin Gipuzkoako herriko plaza batean antolatutako Aurresku eta Zortziko txapelketan parte hartu zuela. "Las pasadas fiestas" testuan, berriz, amaitu berri diren San Pedro eta San Martzial jaietan arrakasta izan duten ekintzak baloratzen dira. "Después de las fiestas" testuan, aldiz, Irungo Atsegiña elkarteak antolatutako ekintza berriak eta Alardearen barneko berrikuntzak laburtzen dira. Lehen orrialdearen amaieran, "Versos Románticos" atalean Yolek idatzitako San Juan gauarekin loturiko desamodio kantua irakur daiteke.

Bigarren orrialdean, Kirol kronikan hiriko jaien inguruan antolatutako kirol txapelketek emandakoa kontatzen da. Besteak beste, atal horretan irakur daitezke futbol partiduko, haurren lasterketako eta pilota partiduko emaitzak. Jarraian, tranbiara bidaiari gehiegi igotzeak eragiten dituen arazoak aipatzen dira. Orrialdearen amaieran Institutu Politeknikoan egindako azterketen emaitzak argitaratzen dira.

Hirugarren orrialdearen hasieran Angel Rosado Acuñak Etxremaduratik Yolek idatzitako olerkiari erantzuten dio hiriko jaiak nolakoak ziren gogoratuz. Ondoren, publizitatea egiteko erabiltzen diren baliabideez ausnartzen du Arri fraideak. "Notas municipales" atalean azken udal bilkurako erabakiak azaltzen dira. Albiste laburren atalarekin amaitzen da aldizkaria, publizitate orrialdearen aurretik.

Argazkiak:
309: Pilota partidu baten ospakizuna La Salle-San Martzial eskolako frontoian.

2155: Irungo Atsegiñako emakumeen danborrada elkartearen egoitzan (1947 inguruan).

27455: Lanbide Heziketako Eskola Sindikaleko (gaur egun Bidasoa Institutua) ikasleak tailerrean.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Abuztuaren 28ra arte Iván Gómez irundarraren erakusketa ikusgai egongo da Menchu Gal aretoan

"Pliegues temporales" datozen hilabeteetan Menchu Gal aretoan ikusgai egongo den erakusketa berria da. Iván Gómez autore irundarraren lana da, irudien, objektuen, espazioen eta pertsonen harremana lantzen duena, harreman horri heltzeko moduak lantzen dituzten diziplinen artearen bitartez.

Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak adierazi duenez, "Gozamena da Menchu Gal aretoan erakusketa hau izatea, aretoa nolanahiko lan eta muntatzeetara egokitzen den froga. Gaur, ohi baino erakusketa garaikideagoa dugu, artista irundar batena gainera, eta hiriko udako kultur eskaintzaren erakargarri nagusietako bat izango da".

Uztailaren 8an inauguratu zen erakusketa, ostiralarekin, eta abuztuaren 28ra bitartean egongo da ikusgai: asteazkenetik larunbatera bitartean, 18:00etatik 21:00etara, eta, igande eta jaiegunetan, 11:30etik 13:30era.

Erakusketa honetarako, Haizea Barcenilla komisarioarekin eskuz esku lan egin du, erakusketa bere proiektuen eta hainbat pieza etnografiko eta ondarezkoaren arteko elkarrizketa bat bilakatu nahian. Erakusketan, objektuen arteko elkarrizketak aurrez grabatuta daude, podcast batean, hitzez, objektuen eta Konpantzia uharteko testuinguruaren eta gorputzek subjektu historiko gisa izan ditzaketen irakurketen arteko harremana transmititzeko.

Aurrerapen txiki bat
Lehenengo espazioa aretorako berariaz egindako lan bat da, ikuslearen gorputzari hel egiten diona, Pirinioetako Bakea sinatu zenean Konpantzia uhartean zegoen pabiloiaren inguruan diharduena eta aretoa bilakatuz espazio berri bat sortzen duena.

Sarreran, Iván Gómezek Anartz Ormazarekin artistentzako laguntzen esparruan egin zuen bideoa dago ikusgai: "El pliegue rojo" izeneko proiektua. Behin pabiloiaren erreprodukzio hori pasatuta, ezkerrean, Iván Gómezen beraren eskultura bat dago, Fuera y afuera, eta, atzealdean, fisikoki esku hartuta beste areto moduko bat bihurtu den espazio batean, geltoki zaharraren argazki bat, Ivánek "La isla de los faisanes. Modos de contar la historia" argitalpenerako egin zuen collage bat.

Gela txikian, zenbait eskultura eta beste espazio batzuk daude: bakoitzak bere QR kodea du, zeina podcastaren hurrengo kapituluekin lotuta dagoen, eta Iván Gómezen piezak ikusten dira, elkarren kontra borrokatzen. Horrela, erakusketak linealtasun historiko bat berreraikitzen du, historiak izozten duena desegiteko espazio komun baterako ihesbide bat, esperientzia estetiko bat harremanetarako tresna gisa trazatu nahian.

Zahara eta Iván Ferreiro izango dira Irun Zuzenean jaialdiko kartelburuak

Dagoeneko Irungo Udaleko Kultura arloak iragarri ditu 2022ko Irun Zuzenean festibalean arituko diren taldeak eta bakarlariak zeintzuk izango diren. Irailaren 30eko eta urriaren 1eko asteburuan izango da ekitaldia, ostiral-larunbatarekin, eta lehen mailako artistek joko dute, hala nola Zaharak eta Iván Ferreirok. Get In sustatzailea arduratu da jaialdia antolatzeaz.

Juncal Eizaguirre Kultura ordezkariak adierazi duenez, aurtengoa Irun Zuzenean festibalaren urtea da; 2022a zuzeneko musikaren aldeko apustuan mugarri izatea nahi baitute. "Ilusio handia jarri dugu, festibala erreferentziazko ekitaldi bihur dadin inguruan udaberritik udazken sartura arteko egutegi musikalaren barruan", erantsi du Kultura ordezkariak. Aurtengo edizioan Iván Ferreiro eta Zahara kartelburuez gain, Ginebras, Maika Makovski, Maren, Ezpalak eta Dupla igoko dira Ficobako eszenatokira.

Ildo horretatik, musika izaten ari da Irungo Udaleko Kultura Arloaren ardatz estrategikoetako bat, eta apustu horren adierazgarririk onena Irun Zuzenean plataforma da: formatu guztietako kontzertuen hiriko agenda dinamizatzeko sortu zen, zuzeneko musika sustatzeko eta entzule berriak erakartzeko, eta festibala du ezaugarri nagusitzat. Bada, 2022an, dimentsio berri batean sartuko da festibala.

Berrikuntzak
Alde batetik, aurrekontua hirukoiztuko da: aurreko edizioan, 40.000 euro izan zen, eta, aurten, 121.000. Beste alde batetik, festibala Ficobako agertokian finkatu da. Azkenik, ordainpekoa izango da eta bi egunetarako sarrerak salgai daude dagoeneko, 30 euroan. "Irun Zuzenean festibalaren jauzi kualitatiboa kartelburu batek edo gehiagok eta agertoki musikalean erreferentziazkoak diren taldeek eratutako kartel bat osatu nahian egin dugu, direla kartelburuak taldeak edo direla bakarlariak" azaldu du Juncal Eizaguirrek. Gainera, bertako talentua babesten jarraitzeko nahia adierazi du Kultura ordezkariak, Kultura km 0 ekimenaren ildotik, bai eta emakumezkoen parte hartze artistikoa sustatzeko asmoa ere.

Zuzeneko musikaren esparruan entzule berriak erakartzeko lantzen ari den ildo baten erreferentzia da ekitaldia, eta, hari esker, azken urteetan, formatu ertaineko erreferentziazko taldeak etorri dira Irunera, Amaia KZko eta Ficobako agertoki handiko aukerak aprobetxatuz. Horrela, azkenaldian, Xoel López, La Bien Querida, Depedro, Izaro, Carolina Durante, Rulo y la Contrabanda, Viva Suecia eta Los Zigarros aritu dira hirian, besteak beste. Sarrerak salgai, hemen.

20 URTE ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Dies Oiassonis inoiz baino indartsuago dator

Irun garai erromatarrera itzuliko da berriro uztailaren 14tik 17ra. Aurrekontua 200.000 eurotik gorakoa izango da jaialdi erromatarraren edizio handiena ospatzeko, 2019an erabilitako aurrekontua bikoiztuz. Zirku erromatarrak, Navigium-ak eta antzezpen historikoak izango dira Dies Oiassonis jaialdiaren programazioa osatuko duten ekintza nagusietako batzuk.

Juncal Eizaguirre Irungo udaleko Hiri Bultzadako arloko ordezkariak adierazi duenez, "Irun Oiasso izango da berriz ere egun batzuez. Indar handiko programa bat izango dugu, eta mugarri handia izango da". Hiri Bultzada arloko ordezkariak azpimarratu du horrelako ekitaldiak oso garrantzitsuak direla hiria dinamizatzeko, "Irunen zorte handia dugu, erromatar iraganarekin lotutako ondare historikoa garrantzitsua delako eta jaialdi hau plataforma bikaina da ondare hori ezagutzera emateko".

Juncal Eizaguirrek aipatu duenez, "aurten, berriro ere, formatu normalean egingo da jaialdia". Alde batetik, antzezpen historikoak izango dira, hala nola Navigium Isidis edo Isis jainkosaren ohorezko prozesioa edo zirku erromatarra eta, bestetik, antzerki emanaldiak eta esperientzia gastronomikoak ere izango dira. Hiri Bultzadako arloko ordezkariak gogoratu du aurreko urtean pandemiara egokitutako jaialdi bat antolatu zutela, baina ez zuen inolako zerikusirik izan ordura arte egindako beste Dies Oiassonisekin.

Gainera, aurtengo edizioa are bereziagoa izango da, laster terma erromatarrak prest izateko ilusio erantsia dagoelako. Horrela, Irungo ondare erromatarra osatuko da eta jaialdian zehar hiritar guztiei termak berreskuratzeko proiektuaren berri emango zaie. Terma erromatarren kontura, jaialdiak irauten duen bitartean, bide batez, birgaikuntza proiektua areago ezagutaraziko da, Museoaren egoitzaren parean kaleko erakusketa moduko bat osatuz jarriko diren panel batzuen bidez. Juncal Eizaguirrek azpimarratu duenez, " ekonomiari dagokionez, oso garrantzitsua da hiriarentzat San Pedro eta San Martzial jaietatik 15 egun igaro ostean hirian neurri honetako jaialdi bat antolatzea".

Jaialdiaren XII. edizioak hemengo eta hango jendea erakartzeko helburuari eutsiko dio, inguruetako udako kultur hitzordu garrantzitsuenetako bat da eta. Antzezpen historikoko jaialdi bat denez, Dies Oiassonisek historiaren berri eman nahi du garaiko elementuak zorroztasun osoz birsortuz. Horrela, Erromatar Inperioaren garaiko Oiasso hiriko janzkerak, agertokiak eta materialak ikusiko dira egun horietan zehar Irunen.

Zirku erromatarra

San Juan plazan izango da, eta saioak egingo dira hilaren 15ean, ostiralean, 18:00etan, 16an, larunbatean, 16:00etan eta 22:00etan eta 17an, igandean, 13:00etan. Sarrerak salgai egongo dira turismo-bulegoan, Oiasso Museoan eta zirkuaren sarreran bertan, ikuskizuna hasi aurretik, 5 euroan.

Azoka erromatarra

Aurten uztailaren 14tik 17ra egingo da, Fermin Calbetón eta Foru kaleetan eta Jenaro Etxeandia plazan, CBAra sartzeko eremuraino. Jaialdiaren 4 egunetan zabalik egongo da 11:00etatik 14:30etara eta 17:00etatik 20:30etara. Erromatarren munduko artisautza-produktuak eta elikagaiak eskainiko dituzte saltzaileek. Azokaren indargarri gisa, beste feria bat egongo da museoaren sarrera inguruan. Bertan, besteak beste, pieza arkeologikoen brontzezko erreplikak, kosmetikoak eta medikuntzako tresnak egongo dira, bai eta artisautzako pieza gehiago ere.

Antzerkia

Antzerkiaren atala bereziki indartuko da XII. Dies Oiassonis jaialdian. Juncal Eizaguirrek adierazi duenez, "krisialdietatik beti aukera berriak sortzen dira eta aurreko urtean antzerki klasikoaren alde egindako apustua errepikatu nahi izan da". Antzerki emanaldiak guztira 5 izango dira eta programazioa honakoa da:

Uztailaren 14an, ostegunarekin, «Els Joglars» konpainiak "¡Que salga Aristófanes!" obra eskainiko du Amaia Kultur Zentroan, 20:00etan. Sarrera orokorra 15 eurokoa izango da eta hobaridunak, berriz, 10 euroko prezioa izango du. Sarrerak ohiko kanalen bidez eros daitezke: Udalaren webgunean eta turismo-bulegoan eta Amaia KZko txarteldegian, sarrerarik geratzen bada.

Uztailaren 16an, larunbatarekin, William Shakespeareren "Tito Andrónico" obra eskainiko da Junkaleko plazatxoan, 22:00etan, publiko helduari zuzendua. Méridako Erromatar Jaialdiaren eta Teatro Noctámbulo taldearen arteko koprodukzio bat da. Sarrera orokorra 10 eurokoa izango da eta hobariduna, berriz, 7 eurokoa. Ohiko kanalen bidez eros daitezke: Udalaren webgunean eta turismo bulegoan eta Oiasso Museoan, ikuskizunaren aurretik, sarrerarik geratzen bada.

Igandean, goizeko 11:30etan, Ezezagunok Antzerki Elkarteak "La paz y otras lunas" eskainiko du Junkaleko plazatxoan. Sarrera doakoa da.

Mujeres de Oiasso bakarrizketak hilaren 16an egingo dira, larunbatarekin, 12:00etan eta 13:00etan, terma erromatarren lorategian, Sarasate kalean. Prezioa 7 eurokoa da eta Oiasso Museoan salgai daude. "¡Las peripecias de un joven de Oiasso!" bakarrizketa uztailaren 17an, igandean, 12:30etan, Junkal plazatxoan eta, ondoren, Oiassoko antzerki tailerra, "Aristofanesen Lisistrata" obraren bertsio laburtu batekin.

Antzezpen historikoak

Dies Oiassonis jaialdiak Behe Inperioaren garaiko kanpamentu baten erreplika bat izango du. Soldaduen janleku baten antzezpena ere egingo da, eta Erromatar Inperioaren garaiko eguneroko bizitza irudikatzeko zenbait tailer egingo dira. Antzezpenen ekitaldi nagusia Navigium Isidis prozesioa izango da, uztailaren 16an arratsaldeko 19:30etan.

Museoan, aipagarriak dira Antzinako Erromako garbiketa eta norberaren higieneari buruzko antzezpen bat, larunbatean 13:30ean. Bestetik, gladiadorearen historiari buruzko beste bat, larunbatean 17:30ean eta igandean 11:30ean Oiassoko plazan eskainiko dena. Bestalde, ostiralean 19:00etan Oiasso antzezpen historikoko Irungo elkartearen aurkezpena egingo da. Museoko plazako agertokian izango da.

Tailerrak

Ohi bezala, jaialdian dozena bat tailer eskainiko dira. Tailer bakoitzaren prezioa 4 euro izango da pertsona bakoitzeko, larrugintzakoarena izan ezik, zeina doakoa izango den. Erreserbak, Oiasso Museoan edo 943639353 telefono zenbakira deituta. Hauexek dira:

-«Kameuak, bitxi erromatarrak» tailerra: uztailaren 15ean, ostiralarekin, 17:00etan, Oiasso Erromatar Museoko plazatxoan. Tailer honetako parte-hartzaileek aukera izango dute igeltsuz eginiko kameuak apaintzeko eta beren bitxi propioak muntatzeko.

-Erromako larrugintzako tailerra: ostiralean, hilaren 15ean, 17:00etan; larunbatean, hilaren 16an, 11:00etan; eta igandean, 11:00etan. Antolatzailea: Oiassoko historia irudikatzeko elkartea. Doan.

-Ezkutu erromatarrei buruzko tailerra: uztailaren 15ean, ostiralarekin, 18:00etan Oiasso Erromatar Museoko plazatxoan. Jarduera honetan beren ezkutu erromatar propioa margotzeko proposamena egingo zaie parte-hartzaileei.

-«Historiari jokoa eman» tailerra: uztailaren 15ean, ostiralarekin, 18:30ean; uztailaren 16an, larunbatarekin, 12:30ean eta uztailaren 17an, igandearekin, 12:30ean, Museoko plazatxoan. Karta-jokoa.

-«Tanagrak, emakumezkoen estatuatxoak» tailerra: uztailaren 15ean, ostiralarekin, 19:00etan, Museoko plazatxoan. Antzinako Greziako estatuatxoak munduko museo ospetsuenetan gordetzen dira, eta tailer honetan figura horien igeltsuzko kopia bat koloretan margotu ahalko dute parte-hartzaileek.

-«Neptunalia, itsasoaren jainkoaren jaialdia» tailerra: uztailaren 16an, larunbatarekin, 11:00etan, Museoko plazatxoan. Gazteenek gustukoen dituzten Neptunoren lagunak hautatu ahalko dituzte (itsas zaldiak, arrainak, olagarroak...), eta helduagoek itsas figurak osatuko dituzte quiling delako teknika erabiliz.

-«Kaskoak eta diademak» tailerra: uztailaren 16an, larunbatarekin, 12:00etan, Museoko plazatxoan. Tailerraren xedea legionario eta zenturioienak bezalako kaskoak eta diademak egitea da.

-«Pupae, jostailu erromatarrak» tailerra: uztailaren 16an, larunbatarekin, 13:00etan, Museoko plazatxoan. Tailer honetan, jostailu bat egingo dute parte-hartzaileek. Erromatarren garaian askotarikoak ziren panpinak (soldaduak, gladiadoreak...). Trapu, hezur, buztin eta abarrez egiten zituzten, eta forma desberdin ugari zeuden: animaliak, jainkoak, tenpluak..

-«Antzerkiko maskarak» tailerra: uztailaren 16an, larunbatarekin, 17:00etan, Museoko plazatxoan. Quilling teknika erabilita, antzerki-maskara bat egingo dugu.

-«Classis, erromatar ontzidia» tailerra: uztailaren 16an, larunbatarekin, 18:00etan, Museoko plazatxoan. Tailer honetan, parte-hartzaileek Erromako itsas armadaren xehetasunak ezagutuko dituzte, eta horren boteretsua izatera nola iritsi zen ere deskubrituko dute. Egurrezko itsasontzi bat eraikiko dute piezak elkarri lotuta, eta margotu egingo dute elementu nagusiak ezagutzeko.

-«Bullae, erromatarren amuletoak» tailerra: uztailaren 16an, larunbatarekin, 19:00etan, Museoko plazatxoan. Tailer honetan, parte-hartzaileek bulla bat egingo dute: larruzko bola bat da, eta barruan landare aromatikoak jartzen zaizkio. Erromatarren garaian lepoko babesgarri gisa erabiltzen zituzten.

-«Oscilla, zintzilikatzeko apaingarriak» tailerra: uztailaren 17an, igandearekin, 11:00etan, Museoko plazatxoan. Tailerreko parte-hartzaileek buztinezko apaingarri biribilak margotuko dituzte, gero etxean, lorategian edo terrazan zintzilikatzeko.

-«Pintura iztuku gainean» tailerra: uztailaren 17an, igandearekin, 12:00etan, Museoko plazatxoan. Parte-hartzaileek iztuku gaineko pintura bat egingo dute, diseinu ponpeiar batzuk erreferentzia gisa hartuta.

-«Ptolomeoren izarrak» tailerra: uztailaren 17an, igandearekin, 13:00etan, Museoko plazatxoan. Parte-hartzaileek idazteko tresnak ezagutuko dituzte eta horiek erabiltzen ikasiko dute; gainera, kalamu edo luma erabiliz idazteko oinarrizko printzipioak ikasiko dituzte.

Beste ekitaldi eta ikuskizun batzuk

Bloke honetan, aipagarriak dira honako hauek: «Aisialdia eta ikuskizunak Antzinako Erroman» hitzaldia, uztailaren 15ean, ostiralarekin, 18:00etan, Oiassoko Portu artekoan (sarrera doan); Ludi Scaenici taldearen musika eta dantza emanaldia, uztailaren 15ean, ostiralarekin, 22:00etan, Junkaleko plazatxoan (sarrera doan); Kalejira erromatarra, ostiralean, hilak 15, 17:00etan, eta larunbatean, 21:00etan, Museoaren egoitzatik San Juaneraino, eta igandean, 12:00etan, Zabaltzatik San Juaneraino; ginkana dendetan barrena, turismo bulegotik abiatuta, larunbatean, hilaren 16an, 11:30ean, Museoaren egoitzaren parean.

Aurten diziplina berri bat batuko da Dies Oiassonis jaialdira: zinea. Uztailaren 17an 22:00etan Gladiator filma emango da. Aire zabaleko emanaldia San Juan plazan egingo da, zirkuaren instalazioa baliatuz eta Bang Bang Zinemaren animazioarekin.

Esperientzia gastronomikoak

Ostalaritza Dies Oiassonis jaialdiaren beste atal garrantzitsu bat izango da. Pintxoaren ibilbidea uztailaren 8tik 17ra egingo da, hiriko 22 establezimenduren parte-hartzearekin. Taberna edo jatetxe bakoitzak erromatarren garaian inspiratutako pintxo bat prestatu du. Honako establezimendu hauek parte hartuko dute egitasmoan: Gaztelumendi, Sargia, El Tostadero, Rugby Taberna, Manolo, Basque Corner, Mari, Ekialde, Irungo Atsegiña, El Bule, Swing Berri, Bikote, Izkina, Altzola, Danako, Felix Manso Ibarla, Naroa, Virginia, Papperino, Real Unión, Don Jagubo eta Bakar.

Bestetik, afari erromatarra antolatuko da, ikuskizun eta guzti, programako berritasunetako bat izanik. Ehun lagunentzako afari bat izango da, San Juan plazan, zirkuko hondarraren gainean. Menua erromatarren garaian inspiratuko da eta, horrez gain, ikuskizun bat ere eskainiko da. Felix Manso Ibarla, Irungo Atsegiña, Gaztelumendi eta Atalaia jatetxeek parte hartuko dute; ikuskizuna, aldiz, A&B Shows eta My Dance Studiok eskainiko dute. Afarirako txartelak 10 euroan saltzen dira turismo-bulegoan.

Merkataritzarekin eta ostalaritzarekin lotuta, stock azoka bat ere egingo dute tokiko merkatariek jaialdiaren egunetan, beren produktuak kalera aterata.

Aurretiazko ekitaldiak

Programa osatzeko, haurrentzako jolasen programa bat, photo call bat eta aurretiazko bi jarduera nabarmen antolatu dira. Alde batetik, asteazkenean, uztailaren 6an, Mercedes Unzu Urmeneta eta Mertxe Urteaga Artigas arkeologoek «Una tarde en las termas» hitzaldia emango dute. Oiasso Erromatar Museoko Portu aretoan izango da, arratsaldeko 18:00etan.

Gainera, uztailaren 8tik aurrera, «Mérida, Theatrum Mundi» aldi baterako erakusketa ikusgai egongo da Oiasso Museoan. Méridako antzoki erromatarraren irudi argitaragabeak, plano historikoak eta urteetan egin diren konponketa proiektuak biltzen ditu erakusketak. Oiasso Museoaren eta Méridako Antzerki Klasikoko Nazioarteko Jaialdiaren arteko lankidetzari esker, Irunen erakusketa honetaz gozatzeko aukera izango dugu. Urriaren 31ra arte egongo da gurean.

Azkenik, aipatzekoa da hilaren 9an 01:00ean SER Historia saioan Oiassori eta Antzinako Erromari buruz jardun zutela. Gainera, saioa grabatu, eta irratiaren podcast plataforman jarriko dute, noiznahi entzuteko moduan.

Yon Gallardo, izozkigilea:

“Orain Europako eta Munduko Txapelketen prestaketan jarri nahi dut arreta”

Argazkia: Estudio Gover

Yon Gallardo izozkigilea Europako Izozki Kopan eta Munduko Izozki Txapelketan lehiatzekoa da. Izozkigileak Papperino izeneko izozki denda du Irunen, baina bere jarduera izozki bolak jartzeaz harago doa. Izan ere, izozki dendako zereginak, prestakuntzekin eta maila altuko txapelketarekin uztartzen ditu. Papperino dendako izozkigileak izozkien sorrera zeinen konplexua den azaldu du.

Nola lortu duzu Munduko Izozki Txapelketa eta Europako Izozki Kopan parte hartzeko aukera?
Neurri batean zortea izan dela uste dut, eta beste alde batetik, urteetan egindako lanari esker. Otsailean aukeratu zuten talde nazionala osatzeko bikotea, Adolfo Romerok eta Pepe Islak osatua eta beraiek aho batez ni aukeratu ninduten taldea osatzeko. Horrelako aukerei ezin zaie ezetz esan.

Zein da zure eginkizuna taldearen barruan?
Horrelako talde baten barruan denetarik egin behar da. Txapelketa baten zati logistikoa izugarria da, 100.000 euroko aurrekontuaz ari baikara. Aurrekontu horretan sartzen dira hotelak, bidaiak, otorduak, lehengaiak, materialak, sponsorrak eta beste hainbat gauza. Lehiaketen aurretik gauza asko antolatu behar dira.

Nola prestatzen zarete hain maila altuko txapelketa baterako?
Garrantzitsuena probak zeintzuk izango diren jakitea da. Hainbat froga egiten ditugu: izotzezko eskulturak, txokolatezko eskulturak, tarta izoztuak, izozki gastronomikoak edo beste asko. Hurrengo urratsa espezialitate horietan punta-puntako profesionalak bilatzea da, eta beraiekin taldean lan egin daitekeela frogatzea. Horrelakoetan garrantzi berdina du abileziak eta taldean lan egiten jakiteak. Taldea aukeratzea erraza izan ez den arren, oso ondo egin dute.

Zertan zentratuko zarete txapelketa iritsi aurreko hilabeteetan?
Hainbat entrenamendu ditugu programatuta, batez ere irailetik aurrera; izan ere, uda lan handiko garaia da izozkigileentzat, eta ez daukagu denbora fisikorik elkartzeko. Hala ere, banaka gure lantegietan errezeta probak egiten jarraituko dugu. Zehaztu dugu zein izango den gaia, eta horren inguruan hasiko gara lanean. Entrenamenduak Granadan egingo ditugu, Islaren instalazio erraldoi batean. Instalazio horretan, lehiaketako neurri eta makineria berberak dituen box bat sortu dute, eta, beraz, baldintza berberetan praktikatu dezakegu. Hondoko zaratarekin entrenatzea pentsatzen ari gara, txapelketan aurki ditzakegun zailtasun guztietara ohitzeko.

Hori guztia izozkigintzako prestakuntzak ematera eskaintzen duzun denborarekin uztartzen duzu, ezta?
Izozkigintza aldi baterako lana da. Denboraldia gero eta gehiago luzatzen ari den arren, hilabete batzuk baditugu, azarotik otsailera arte gutxi gorabehera, askoz lasaiagoak direnak, eta denbora-tarte hori izozkigintzako prestakuntzak eskaintzeko aprobetxatzea gustatzen zait. Alde batetik, nire establezimenduan bertan eskolak ematen dizkiet beren izozki denda mugiarazi nahi duten pertsonei. Bestalde, eskolak ematen ditut Basque Culinary Centerren, Carlos Argiñano eskolan, eta aurten Alacanteko unibertsitatean ere ematen ditut. Beraz, formazioei dagokienez punta-puntako posizioan gaudela esan dezakegu.

Erraza egiten zaizu zure ezagutza guztia bestei transmititzea?
Zati garrantzitsu bat ezagutza da, baina bakoitzaren trebetasuna ere sartzen da jokoan. Ez da erraza ezagutza hori helaraztea, izozkia baita elikagairik konplexuena. Askotan ez gara konturatzen produktu horren atzean dauden kalkulu guztiez, izozki bat ona izan dadin, testura eta zapore jakin bat izan dezan, urtzeko behar duen denbora edo duen zapore-kontzentrazioa izan dezan. Elaborazio-prozesua teknikaren eta matematikaren araberakoa da. Benetan, izozkiak Exceleko taula batetik abiatuta egiten dira. Azukreen pisu molekularra ere kontuan hartzen dugu, beraz, elikadurako kimika da. Guk hori guztia irakasten dugu etorkizuneko izozkigileek prestakuntza egokia izan dezaten eta izozkiak nola egin nahi dituzten erabaki dezaten.

Berrikuntzak lortu al daitezke izozkigintzaren sektorean?
Sektorean bereizi ahal izateko, garrantzitsua da bi gauza kontuan hartzea. Alde batetik, klasikoak ondo edo hobeto egitea. Beti daude banilla bezalako zaporeak hobetzeko tartea dutenak eta horretarako asko landu behar dira. Jakina, bezeroek ere berrikuntzak eskatzen dituzte, eta jendea harritu ahal izateko proba asko egiten ditugu lantegian. Makina txiki bat daukagu proba horietarako, eta martxan dago etengabe.

Izozkigintzarekiko duzun pasioan igartzen da izozkigintzako tradizio handiko familia batetik zatozela?
Nik uste dut zerikusi handia duela. Izozkigintzarekiko dudan grinaren zati bat hortik dator. Beste asko bezala, izozkigintza oso lan sakrifikatua da, ordu asko eskatzen baititu eta familiarekin edo lagunekin egoteko denbora asko kentzen baitizu. Horregatik, oso garrantzitsua da zure lana oso gustukoa izatea. Txikitarik hori ikusi izan ez banu, agian gaur ez nintzateke maila honetan egongo.

Zer aurreikuspen dituzu izozki dendan uda honetarako?
Pandemiaz geroztik, dena da ziurgabetasuna, ohitura eta ordutegi asko aldatu baitira. Baina urte sasoi hau iristeko gogo handia dugu. Aurten uste dut bereziki nabarituko dugula maskara kalean eramatea ez dela derrigorrezkoa. Irungo jaietan oso ondo lan egin dugu eta giro zoragarria egon da. Oso jai osasuntsuak izan direla uste dut, ez baitut jakin inolako istilu motarik izan denik. Nahiz eta jende asko izan dugun eta jendeak bere izozkia eskatzeko gogoa zuen, dena ondo atera da. Uste dut ilusio horrekin uda berdina edo hobea izango dela.

Zein dira zure hurrengo lan-proiektuak?
Lehenik eta behin, orain Europako eta Munduko Txapelketen prestaketan jarri nahi dut arreta, bi urte hauetako helburu garrantzitsuena izango baita. Ahalegin guztiak egin nahi ditugu gauzak ondo egin eta irabazi ahal izateko. Pozik esango nuke munduko onenak garela. Bestalde, askoz handiagoa den lantegi berri bat ireki dut Belaskon, eta bertan izozkiak egiten ari gara jatetxeetarako. Izozki klasikoetatik neurrira egindako izozkietara egiten dugu lan, adibidez, zainzurien izozki bat. Gainera, negozio ildo berriak bilatzen saiatzen ari gara, pixkanaka argituko ditugunak.

Abuztuan folk musikak Bidasoa eskualdeko eszenatoki naturalak beteko ditu

Irungo, Hondarribiko eta Hendaiako Udalek, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bidez, Bidasoa Folken XXI. edizioa antolatu dute. Jaialdia abuztuaren 19, 20 eta 21ean ospatuko da Hendaian, Hondarribian eta Irunen. Guztira, 5 kontzertu egingo dira folkaren eta musika garaikidearen eszenan erreferenteak diren taldeekin.

XXI. Bidasoa Folkean Aragoitik, Marokotik, Portugaletik, Galiziatik, Andaluziatik eta Euskal Herritik etorritako artistek parte hartuko dute. Irungo Udalaren ordezkari gisa Miguel Angel Paezek nabarmendu du “Bidasoa Folk antolatzen dugun hogeita batgarren urtea da jarraian aurtengoa, apustu irmoa eginez kalitatezko musikaren eta kultura aberastasunaren alde”. Irungo Udaleko ordezkariak azaldu duenez, jaialdia antolatzerakoan beti ardatz gisa kontuan hartzen da ekitaldiaren mugaz gaindiko izaera.

Juan Luis Silanes Hondarribiko Udalaren ordezkariak azaldu duenez, “abuztuaren erdian, Txingudi badiako hiru hiriak eszenatoki ezin hobek izango dira oso kalitate handiko folk musika entzuteko”. Musika jaialdiaren programazioari erreferentzia eginez, Hondarribiko Kulturako zinegotziak aurreratu du herritarrak nahiz kanpotik etortzen direnak jaialdian ikusiko eta entzungo dutenarekin “txoratuta” geldituko direla.

Itziar Aizpuru Hendaiako Udalaren ordezkariak erantsi duenez, oso kontuan eduki behar da Bidasoa Folkek kultur balio handiko kontzertuak eskaintzen dituela, garai ezin hobean. Hendaiako Udalaren ordezkariaren hitzetan, “Bidasoan udaz gozatzeko modu bikaina, zalantzarik gabe”.

Abuztuaren 19an, Hendaian
Jaialdia abuztuaren 19an hasiko da Hendaiako Gaztelu Zahar Frontoian 21:00etan Michel Etcheverryren kontzertuarekin. 70 urteko abeslari baxu nafarrak bere 28. Albuma euskaraz grabatu berri du, “Ezinago maiteturik izenekoa”. Euskarazko 10 abestik osatzen dute bilduma. Josean Martín, jaialdiaren antolakuntzako arduradunak azaldu du Echeverryk bere ibilbidea pilotan hasi bazuen ere, geroago musikan zentratu zela eta Iparraldean bere abestiek arrakasta handia izan dutela.

Eguneko bigarren kontzertua 22:30etan hasiko da eta O´Carolan taldea igoko da eszenatokira. Taldeak Turlough O´Carolan harpa jotzaile irlandarrarengandik hartzen du izena, “azken bardoa” bezala ezagutzen dena eta musika barrokoa eta musika tradizionala modu naturalean elkartzen asmatu zuena. Izan ere, taldearen errepertorioa elikatzen duten kantu gehienak egile honen konposizioak dira. Errepertorioa osatzeko beste eskualde eta kultura batzuetako pieza tradizionalak tartekatzen dituzte (Espainia, Frantzia, Erdialdeko Europa, etab.).

Gainera, O´Carolan taldeak eszenatokian zabaltzen duen instrumentu sorta handiak hamaika soinu ñabardura ematen dizkio bere musikari, eta horiei interpreteen kalitatea gehitu behar zaie.

Abuztuaren 20an, Hondarribian
Arma plaza izango da Hondarribia Bidasoa Folk jaialdiaren agertokia. Bigarren jardunaldia abuztuaren 20an 21:00etan hasiko da Ensemble Andalusí del Mediterráneo taldearen kontzertuarekin. Taldea 2020. Urtearen amaieran sortu zen Fundación Tres Culturas del Mediterráneo eta Andaluziako Juntako Kultura Kontseilaritzaren bultzadari esker. Taldearen sorrera flamenkoaren Nazioarteko Egunaren urteurrenean kokatzen da eta UNESCOk Andaluziako musika Gizateriaren Ondare materialgabe gisa aitortzeko erreklamazio gisa erabili da. Penintsulako musika andaluziarraren jatorria Andaluzian sartu ziren lehen arabiarretan eta Marokoko iparraldean eta Al Andalusen ezarri ziren Ekialde Ertaineko lehen etorkinetan dago. Errepertorioa XIII. Eta XIV. Mendeetan zabaldu zen, Marokoren eta Al Andalusen arteko harreman onari esker. Ordutik belaunaldiz belaunaldi transmititu da marokoarren artean, benetakotasuna bereziki zainduz.

Larunbateko bigarren kontzertua 22:30etan hasiko da, Celina da Piedaderen eskutik. portugaldar tradizioak munduko musiketara hurbildu duen pertsona garrantzitsuenetako bat da Celina. Soinujolea, kantaria eta konpositorea da eta hiru album ditu: “Em casa” (2012), “O cante das ervas” (2014) eta Sol (2016). 98az geroztik Associação PédeXumborekin kolaboratzen du, ohorezko lehendakaria delarik. Gainera, 2000. Urtean Ensemble de Rodrigo Leão Cinema osatu zuen eta eszenatokia Mayra Andrade Uxía, Ludovico Einaudi, Gaiteros de Lisboa, António Chainho eta Samuel Úria izen handiko musikariekin ere partekatu du.

Abuztuaren 21ean, Irunen
Jaialdia Irunen itxiko da, abuztuaren 21ean, Juncal plazan, 21:00etan, Uxia & Javier Ruibalek eskainiko duten kontzertuarekin. Bi musikari horiek esperientzia handia dute olerkiak musikatzen, musika herrikoitik datozenak. “De tu casa a la mía” proiektua bi poeta unibertsalen, Rosalía eta Lorcaren, erretratu musikala da. Proiektuaren helburua da olerkien bidez hegoaldetik iparralderako bidea egitea, adiskidetasun eta konplizitate istorio baten erdian. Horrela, musikariek “batzen gaituena” erdigunean jarri nahi dute, banatzen gaituenaren ordez, horretarako, musika eta arima baliatuz.

Jaialdiaren espiritua
Bidasoa Folk jaialdia 2021ean sortu zen, mugaz gaindiko folk musika jaialdi bat antolatzeko Irungo, Hondarribiko eta Hendaiako Udalen artean, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bitartez.

Eskualdeko udalen lankidetzak ahalbidetu du jaialdiaren antolakuntzarako indarrak batzea eta kalitatezko folk musikako jaialdi bat sortzea. Doako kontzertuak izanda, era guztietako jendea erakartzea lortzen dute, hau da, Bidasoako herritarrak eta bisitariak, gazteak eta hain gazteak ez direnak edo folk zaleak eta musika genero horri buruz gehiago jakin nahi dutenak.

Bidasoa Folk jaialdiak Bidasoa-Txingudi eskualdea kultur eta turismo erreferente bihurtzen du, hainbat herrialdeetako musikari eta tradizioei balioa emateaz gain. Jaialdiak berak agerian uzten du Bidasoa-Txingudi lurraldeak duen kultur aniztasuna.

Kirola udaren sinonimoa da Irungo haurrentzat

UDA 2022 kanpainaren barnean biltzen dira Irunen udan kirol elkarteek proposatzen dituzten ikastaroak. Kirol eskaintza 16 urte bitarteko haurrei zuzendua dago, udan ere biztanleria gazteenari kirola praktikatzeko aukera emateko. Aurtengo kanpainaren aurkezpena Santiagotarrak Kirol elkartearen ontziralekuan egin zen.

Borja Olazabal Kirol ordezkariak UDA 2022 kanpainaren aurkezpenean aipatu zuenez, kirol egitasmoa bi urteren ostean ohiko formatuan itzuli da, izan ere, aurreko urteko kanpaina pandemiarengatik baldintzatua egon zen. Borja Olazabalek aurkezpenean adierazi zuenez, "udan, kirolak ezin du huts egin Irunen, eta, horregatik, estimatzekoa da hiriko kluben ahalegin eta dedikazioa gazteei askotariko diziplinak eskaintzeko". Horrela, Borja Olazabalek azpimarratu zuen irundar gazteek beren kirolik gustukoenean aritu edo kirol modalitate berri bat probatzeko aukera izango dutela.

Aurten Irungo 17 klubek 16 urtera bitarteko neska-mutilentzat udako kirol ikastaroak antolatu dituzte. Kirolen eta ikastaroen eskaintza askotarikoa da.

Ur kirolak

Uztailean eta abuztuan Santiagotarrak kirol elkarteak bi asteko iraupena izango duten ikastaroak eskainiko ditu. 9 eta 13 urte bitarteko haurrek ur lasaietako eta ur bizietako piraguismoa probatzeko aukera izango dute eta 10 eta 14 urte bitarteko gazteak aulki mugikorreko arraunketan ibili ahalko dira. Era berean, kirol klubak aste bateko ikastaroak eskainiko ditu 12 urtetik aurrerako gazteak Stand Up Paddlean eta errekreozko piraguetan ibiltzeko aukera izan dezaten.

Jone Otaño Santiagotarrak elkarteko prentsa arduradunak azaldu duenez, beste urteekin alderatuta udako ekintzetan izen emateen kopuruak behera egin du. "Uste dut orokorrean ekintza guztietan gertatu den zerbait dela, baliteke udan gero eta jarduera gehiago antolatzen direlako edo jendeak aurten kanpora joatea erabaki duelako".

Santiagotarrak klubak udaran bi motako ikastaroak eskaintzen ditu. Batetik, Udalekuak, hau da, goizeko ludoteka non haurrek egunero 2 orduz uretako ekintzak egiten dituzten. Bestetik, uretako kirol modalitateen ikastaroak ere eskaintzen ditu klubak, haurrek kirol berriak ezagutu ditzaten eta hurrengo denboraldietan klubaren harrobia handitzeko.

Eskubaloia

Uztailaren 4tik 29ra Bidasoa kirol elkarteak aste bat eta lau aste bitarteko ikastaroak eskainiko ditu 7 eta 13 urte bitarteko gazteek udan eskubaloia praktika dezaten.

Surf

Central Surf eskolak ekainaren 15etik irailaren 15era arte aste bateko ikastaroak eskaintzen ditu adin guztietako haurrentzat. Iñigo Zabalza Central Surf

eskolako irakasleak eta fundatzaileak azaldu du surf eskola honek urteak daramatzala udako ikastaroak antolatzen. "Aurten ikastaroen arrakastaren inguruko zalantza gehiago genituen UDA programaren barnean eskaini behar ziren ekintza kopuru handia ikusita, baina orain oso erritmo onean lan egiten ari gara".

Udaraz gain, Iñigo Zabalzak azaldu du Central Surf eskolan urte osoan zehar ikastaroak eskaintzen dituztela. "Udaran batez ere lehen aldiz surfa probatzen duten haurrak jaso ohi ditugu", adierazi du surf eskolako fundatzaileak. Iñigo Zabalzaren hitzetan surfa kirol berezia da, haizearengatik, itsasaldiengatik eta olatuengatik guztiz baldintzatuta baitago, beraz, denbora asko eskatzen duen kirola da.

Mahai tenisa

Leka Enea mahai tenis klubak 8 eta 16 urte arteko gazteei aste bateko iraupena izango duten ikastaroak proposatzen dizkie uztaileko eta abuztuko hilabeteetarako. Zehazki, Leka Enea klubean udako ikastaroak uztailaren 11ean hasiko dira. Ioana Tecla Leka Enea klubaren izenean adierazi du ekintzak goizetan egingo dituztela, goizeko 11:30etatik 13:00etara. Santiagotarrak klubari gertatu bezala, Ioana Teclak baieztatu du Leka Enea klubean ere aurten izen emateetan beherakada nabaritu dutela.

Udako ikastaroetan haurrak taldekako eta koordinazio jolasetan eta mahai tenisean trebatzen dira. "Leka Enean udan antolatzen ditugun ekintzen helburua haurrek mahai tenisa ezagutaraztea da, baina gure nahi nagusia haurrek udaraz gozatzea da". Izan ere, Ioana Teclaren hitzetan "zenbat eta hobeto ezagutu kirola orduan eta errazagoa izango da hurrengo denboraldian haurrak klubera batu nahi izatea".

Zaldiketa

Jaizubia hipika klubean uztailean eta abuztuan 7 eta 16 urte bitarteko haurrek eta gazteek zaldiketak praktikatzeko aukera izango dute.

Futbola

Futbolaren kasuan, hainbat dira udaran zehar futbol ikastaroak eskaintzen dituzten hiriko kirol elkarteak. Real Unión klubak uztailean zehar eskainiko ditu udako ikastaroak eta 7 eta 13 urte arteko gazteei zuzenduak egongo dira. Behobia kirol klubak ere 7 eta 13 urte arteko haurrekin lan egingo du, baina Behobiaren kasuan ikastaroak uztailean zein abuztuan egingo dira. Uztailean Mariñok 8 eta 13, San Marcial klubak 8 eta 12 eta Landetxa kirol klubak 8 eta 15 urte bitarteko gazteak futbolean trebatuko dituzte.

Atletismoa

Bidasoa Altetiko Taldeak uztailerako eta abuzturako astebeteko ikastaroak eskaintzen ditu 5 eta 14 urte arteko hau eta gazteentzat.

Igeriketa eta kiroldegiko ikastaroak

Bidasoa XXI klubak hainbat ikastaroa eskaintzen ditu Irungo kiroldegietan egingo direnak. Batetik, uztaila eta abuztuan 3 eta 16 urte arteko haurrentzat igeriketa ikastaroak proposatzen ditu. 12 eta 15 urte arteko gazteek, berriz, cyclo indoor ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute. Bestetik, 10 eta 15 urte artekoek uztaila eta abuztuan zumba ikastaroetan parte hartzeko aukera izango dute. Azkenik, uztailean bakarrik, funky eskolak emango dira 12 eta 16 urte arteko gazteentzat.

Gimnasia erritmikoa

Irunesa Kirol Elkarteak gimnasia erritmikoko campusa antolatu zuen uztailaren 4tik 15era, 6 eta 14 urte arteko haurrentzat eta gazteentzat.

Errugbia

Txingudi Errugbi klubak errugbiarekin lotutako jolasak proposatzen ditu uztailerako astebeteko ikastaroetan 8 eta 18 urte arteko haurrentzat.

Squash

Luralai Squash klubak ekainean eta uztailean 6 eta 16 urte arteko haurrentzat antolatu ditu ikastaroak. Klubak Squash Eskola abiatu duen lehen urtea izango da honakoa. Gorka Arretxe Lurlasai klubeko kirol zuzendariak azaldu du ikasturtean zehar 16 adin gabe batu direla entrenamenduetara, baina uda iristearekin ikasle gehienek atseden hartzea erabaki dute.

Ikastaroak antolatzeko Gevolution metodologia berritzailean oinarritu dira. Gorka Arretxeren hitzetan, "laburbilduz, gazte bakoitzaren behar eta trebeziei moldatzen diren ariketak egiten ditugu". Oro har, psikomotrizitatea, erreflexuak, garapen kognitiboa eta garapen fisiko zein mentalean oinarritzen diren dohainak lantzen dira. "Jolas eta ariketa erraz eta dibertigarrien bitartez, haurren garapenean lagungarri izango dituzten urratsak egiten erakusten diegu, Squashean erabiltzen diren, espazio, erreminta eta arau ezberdinak baliatuz", gaineratu du kirol zuzendariak.

Izan ere, ikastaroak squasha ezagutarazteko bide aproposa dira. Kirola egiteaz gain, kirolariek squasharen berezitasun nabarienak ezagutuko dituzte, hau da, erabiltzen direna pista, erraketa eta pilota bereziak zeintzuk dira eta joko erraz naiz ezezagun honek eskatzen duen inplikazioa, arreta eta ematen dituen sentsazioak ere ezagutuko dituzte. Gorka Arretxek azaldu duenez, "kirol kolektiboetara ohituta dauden gazte gehienek, ez dute inoiz Squashean sentitzen duten sentsaziorik inoiz nabarituko". Kirol zuzendariaren iritziz squasha haurrak, fisikoki zein mentalki, erabat asetzen dituen jolasa da.

Ikastaro hauen bidez asmoa da hurrengo denboraldira begira klubera jende berria batzea. Gorka Arretxeren hitzetan, "hala ere, kirol ezezaguna da eta gure esperientziaren arabera, horrelako eskaintzek ez dute helburu hori betetzen hasieran". Horregatik, funtsezkoa da jendearengana joatea, Squasha zer den ikusi eta proba dezaten. Izan ere, horrela lortu dituzte ikasturtean zehar beraiekin entrenatu diren gazte hauek guztiak, "ikastetxeetara Squasha zer den erakustera joan ondoren etorri zaizkigu Squash Eskolara" adierazi du Arretxek. "Orain, gazte hauen (eta gurasoen) ahoz ahokoak asko lagunduko digula uste dugu, baina, Squasha kalera ateratzen jarraitu beharko dugu, eta pixkanaka arrakasta izango duen kirola izango dela ziur nago", gaineratu du Gorka Arretxek.

Tenisa

Badia klubak uztaila eta abuztuan 2 asteko ikastaroak proposatzen ditu 7 eta 16 urte arteko haurrek eta gazteek tenisa praktikatzeko aukera izan dezaten.

Padel

Padel Indoor Bidasoa klubak 8 eta 16 urte arteko haurrei uztailean eta abuztuan padelean aritzeko aukera emango die.

"THEATRUM MUNDI" erakusketa berria Oiasso Museoan

Uztailaren 8an "Theatrum Mundi" erakusketa berria estreinatu genuen. "Theatrum Mundi" esamoldea topiko literario bat da, bizi garen errealitatea eszenatoki gisa ikusten duena, non guztiok aktore garen, gure bizitzan zehar gure rolak antzezten. Gure posizioa bizi dugun egoeraren arabera erabakitzen da, gure garrantzia ez da gu garenaren araberakoa, antzezten dugun paperaren araberakoa baizik.

Duela 2.000 urte baino gehiago, Augusto enperadoreak Hispaniako Lusitania probintzian hiri bat sortzea erabaki zuen, astur eta kantabriarren aurkako gerretan merituak egin zituzten soldadu beteranoak bertan ezartzeko. Aukeratutako lekua Ana ibaiaren ibia izan zen, gaur egungo Guadiana ibaia, non Zilarraren Bidea deritzonaren ardatzak penintsula egituratuko baitzuen Hispaniako iparraldean jada bazegoen aberastasun minerala hegoalderantz aterata. Lusitaniako probintzia inperial berriaren hiriburua izango zen kolonia berri hori, eta Augusta Emerita deituko zen, gaur egungo Merida, Augustoren alde merituak egin zituzten soldaduen hiria.

Augusta Emeritako eraikin guztiak erabilgarritasun eta iraunkortasun helburu argiarekin eraiki ziren, horiek baitziren erromatar armadako ingeniarien berezko ezaugarriak. Meridako Zirkoan, Anfiteatroan, Akueduktuetan eta zubietan ikus daiteke haien eraikinen sendotasuna, baina bada eraikin bat artisten berezko edertasunaren nolakotasuna duena. Meridako Antzokia da eraikin hori. 1910ean induskatu zen eta erromatarren garaian hasi eta XX. mendera arte jasandako hainbat birmoldatze eta zaharberritzeren ondoren iritsi da guregana. Joan den mendeko zaharberritze horiek bere izenetik kanpo ez ezteko, ez eta duen iragan greziarra ere, Meridako Antzokian dagoen guztia erromatarren garaikoa dela pentsatu ez dadin, MERIDAKO ANTZOKI KLASIKOA (MAK) deituko diogu eraikin horri, termino horrek bateragarri egiten baititu bere iragan erromatarra, zaharberritze modernoak, eta Meridako Antzerki Klasikoaren Jaialdietan gaur egun duen erabilera.

Meridako Antzoki Klasikoaren Arkitektura, eszenatoki bizi eta unibertsal gisa, 2.000 urte baino gehiagoko antzintasunarekin, antzoki eraikinen arketipo arkitektonikoa zen erromatarren garaian. Gugana iritsi diren aztarna arkeologikoen kalitateak eta benetakotasunak, zaharberritzeetan asmatu izanak, aukera ematen digu Meridako Antzerki Klasikoaren Jaialdietan erromatar espazioaz gozatzeko.

Historialarientzat beharrezkoa zen antzoki hori erromatar garaian nolakoa zen jakitea, garai hartako deskribapen literarioak ez baitziren hurbiltzen ez formaren ez espazioaren interpretaziora. Esan ohi da esplika daitekeenak ez duela merezi margotzea, ez da gauza bera esatea MAKek oihal bat zuela edo marraztuta ikustea. Zaila da bere jatorrizko irudia imajinatzea, Venus Miloskoa besoekin imajinatzea kostatzen zaigun bezala. Beste horrenbeste gertatzen da gure antzokian ere, zaila da onartzea atzealdeko horma adreiluzkoa zela, gorriz estukatua, edo egurrezko sabaia zuela. Material suntsigarri horiek guztiek ezin izan diote eutsi bi mila urteko historiari, baina izan zirenaren arrastoak utzi dituzte, eta, hala, aldatu egiten da gure erretinan grabatuta dugun harri-irudia, luxuzko eta egiazkoago beste baten alde, dekorazioz eta kolorez betea. Antzokiaren goiko aldeak errazago hondatzen dira, fenomeno meteorologikoek zuzenean eregiten dietelako eta haietan eraikuntza materialak arpilatzea errazagoa delako. MAKen zatirik handiena lurperatuta egon da, eta zailagoa da lurperatutako harlanduak arpilatzea agerian daudenak baino. Hondatze egoera hori okerragotu egiten da, estalkiak zurez, sokaz eta abarrez eginak direlako, granitoa eta harmailen hormigoia baino material suntsikorragoak baitira horiek. MAKen galdutako elementu batzuek aztarnak utzi dituzte, baina goiko aldeetan aztarna horiek galdu egin dira, nahiz eta beste antzoki erromatar batzuetan mantendu. Erakusketako irudietan berreraiki da nolakoak ziren eta nola eragiten zuten MAKen agertutakoaren arabera, haien formak inguruan eraikitako beste antzoki batzuekin alderatuta.

Hobeto ezagutzen badugu, hobeto baloratuko dugu bitxi arkitektoniko hau. Hiru mailatan antolatu da erakusketa:

1. Beheko maila, egungo errealitatearen eta zaharberritze desberdinen planoekin.

2. Erdiko maila, hitzen maila da, eta antzokiko guneak eta emanaldiak azaltzen dira bertan.

3. Goiko maila, zentzumenen bidez hautematen diren irudien maila da, eta antzokia erromatarren garaian sortu zenean nolakoa zen erakusten digu.

Erakusketa urriaren 31a arte egonen da gurean, zatoz ikustera!

ESTUDIO FOTOGRAFÍA
GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

LEKAENEA LH2

Denbora-pasak

7 hitz: Izozki zaporeak

P	R	X	S	T	T	P	W	Y	C	K	C	B	Y
C	U	I	Z	X	D	S	E	J	R	K	L	D	I
B	K	Q	J	L	H	C	Q	D	L	I	M	O	I
B	V	T	X	O	K	O	L	A	T	E	A	Z	M
P	Y	M	P	V	Q	I	K	T	O	E	M	T	Y
W	J	O	Q	U	R	T	G	S	Z	Z	A	H	A
O	T	Y	E	R	D	B	I	J	O	C	R	U	Y
T	R	I	W	I	H	A	N	Y	Z	W	R	R	Y
Y	S	G	V	K	R	N	E	Z	B	W	U	Q	B
O	H	U	H	X	O	I	I	A	U	T	B	D	L
H	V	Y	L	R	A	L	O	O	H	R	I	F	Z
J	Z	L	K	W	P	L	A	G	F	R	M	A	G
E	P	M	H	F	F	A	K	I	R	Z	S	G	I
Z	F	O	P	I	S	T	A	T	X	O	A	D	E

Txokolatea, hur, banilla, jogurt, marrubi, pistatxo, limoi.

		2				6		
	3	8		6		5		2
					7			9
8			9	1		7		
4				7	2			
2	9			3		4		8
	5							
6		9	3					7
			7		8		6	4

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Neskatxa gazte paregabia

Neskatxa gazte paregabia,
apirilleko arrosa,
izarra beziñ dizdizaria,
txoriya beziñ aidosa;
zure ondotik ni nabil
galdurikan bozan,
zu ikusi ta konsolatzen naiz,
nere biotzak au poza.

Neskatxa gazte
polit bat
Donostiako kalian,
antxen ikusi nuen zagola
Bertxako aurrian.
Nai niyon segitu baño
geiyago eztut ikusi
nere begiyan aurrian.

S.R.A. andereari jasoa (Bilintxen bertsoak dira, Izazu nitaz kupira sailekoa lehenengoa) (1959-IX-26).

Esaerak

Gure amak esatentzuen iñor erritan ai zen denboran:
Ijeniyo txarra
eta muturra luze
aitzurra eta palak
mudatuko naute

Erderaz: Genio y figura, hasta la sepultura.

Irungo Kateako S.R.A. andereari jasoa (1959-IX-30). Amari ikasi zion. (El Bidasoa, 1959-XI-14).

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

EL PILAR LH6

Moda eta iraunkortasuna uztartzeko ideiatik sortu da We Are Mer

Argazkia: Estudio Gover

Azken hamarkadan arropa sortzeko eta kontsumitzeko ohiturak eta moduak errotik aldatu dira. Soberakinek eta multinazionalek sektorearen kontrola hartu duten bitartean, gero eta gehiago dira iraunkortasuna eta esklusibotasunaren alde egiten duten proiektu txikiak. Horixe da Bea Zapiainek eta Oier Gilek sortutako We Are Mer arropa marka berriaren funtsa, gizartean zabaldutako kontsumo ohituretan eragin nahi duena.

Nola erabaki zenuten proiektu hau hastea?
Bea: Oier diseinatzailea da eta ni erizaina. Pandemiaren ondoren, Oierrek proiektu bati ekiteko une egokia zela erabaki zuen, eta elkarrekin egitea proposatu zidan. Ilusio handia egin zidan. Marka jasangarri bat sortzea izan zen hasierako asmoa. Iazko udan hasi genuen proiektua, baina emaitza ez zitzaigun asko gustatu, eta horregatik dena aldatzea erabaki genuen. Iazko urrian hasi ginen proiektu berri honi forma ematen.

Oier: Janzteko orduan antzeko gustuak ditugula konturatu ginen. Horregatik erabaki genuen bioi gustatzen zitzaigun arropa egitea, horrela, biok erabili ahal izateko.

Erraza izan da proiektua martxan jartzea?
Oier: Inolaz ere. Lehen proba ez zitzaigun ondo atera. Gainera, aurrera egin ahala konturatzen zara gauzak espero zenuena baino askoz konplexuagoak direla.

Bea: Jantzien diseinuaz gain, honelako proiektu batek enpresa bat sortzea eskatzen du, baita bidean ikasi behar izan ditugun beste gauza asko ere. Denbora asko inbertitu dugu, baina gogo handia dugu jendeak gure lana ezagut dezan.

Zer jantzi mota sortzea pentsatu duzue?
Bea: Eguneroko arropa izatea nahi dugu. Edozein egunetan erabil daitezkeen gauzak, denbora-mugarik gabe, adibidez alkandorak. Normalean jantzi sinpleak izatea gustatzen zaigu. Oversize joerako jantzi asko sortu ditugu, bioi asko gustatzen baitzaigu horrela janztea.

Oier: Diseinuak egiterakoan, geure gustuetan oinarritzen ari gara egunerokoan zehar zer behar dugun pentsatuz. Oinarri beretik abiatuta, emakumeen eta gizonen jantziak sortzen ditugu.

Marka jasangarria izateak bezero gehiago lortzen lagunduko dizuela uste duzue?
Oier: Gure erronka nagusia proiektua jasangarria izatea zen, oso mugatzailea izan gabe. Era berean, ez dugu marka jasangarriaren estereotipoan sartu nahi, guztiek partekatzen baitute pixka bat estetika. Oso interesgarria iruditu zaigu enpresa iraunkor bat sortzeko bidean aurkitu ditugun aukera guztiak.

Bea: Gure marka sortzeko "destcok" ehunak erabili ditugu, hau da, beste marka batzuetako ehun soberakinak. Horrela, gure jantziek beste marka jasangarri batzuen ehunik ez izatea lortzen dugu, lihoa adibidez. Konturatu gara beste aukera asko daudela.

Beste xehetasun garrantzitsu bat da bezeroak erosketa egin ondoren ekoizten direla arropak, ezta?
Bea: Hori da, negozio jasangarri bat sortzeko beste modu bat da, gainprodukzioak saihesten baitira. Horrela, behar duzuna bakarrik gastatzen duzu, eta hasieratik gure ideia ez da izan ekoizpen masiboak sortzea, kontrakoa baizik. Horrek ere produktua bereziago egiten du, bezeroa berarentzat bakarrik sortutako jantzi bat erosten ari baita. "Destock" ehunak izateak aukerak mugatuagoak izatea eragiten du, eta, beraz, ez dago ehun berarekin egindako pieza askorik, eta hori erakargarria da jendearentzat.

Oier: Guk proposatzen duguna arropa kontsumitzeko beste modu bat da, eta hemen ez gaude oso ohituta gaur egun. Hala ere, duela ez asko, gure gurasoek edo aitona-amonek jostunarengana joateko ohitura zuten, eta beren gustuen, beharren edo aurrekontuaren arabera zerbait sortzeko ohitura. Hori dela eta, uste dugu gure marka iraganeko ohitura onak berreskuratzeko modu bat dela, izan ere, baliteke azken urte hauetan arroparen munduan izan diren aldaketak aproposenak ez izatea. Horrela, iraganeko onena aurrerapen berriekin konbinatzen dugu. Beste modu batera kontsumitzen ikasi behar dugu, beste herrialde batzuetan egiten duten bezala. Hemendik kanpo askok aukeratzen dute kate handietan ez kontsumitzea eta arroparen jatorriari buruz informatzea. Guk geuk, proiektu honi esker, kontsumitzeko modu berri bat deskubritu dugu.

Proiektuaren zein fasetan zeundeten oraintxe bertan?
Bea: Egia esan, oraindik 0 puntuan gaude, aldapa aurreko lautadan. Oraintxe bertan, publizitatea egiteko estrategiak planifikatzen ari gara, etorkizunean salmentak ekarriko dizkigulakoan baikaude.

Orain, hasieratik ikusita, zer helburu dituzue etorkizunari begira?
Bea: Oraintxe bertan guk ekoizten dugu gure tailerrean. Etorkizunean guretzako lan egingo duen jendearekin tailer bat osatzea gustatuko litzaiguke. Gustatuko litzaiguke hemendik kanpo gure jantziak ekoizteko tailer bat bilatu behar ez izatea, hemengo jendearekin egitea baizik. Horrela, gu diseinuaren eta kudeaketaren atalaz arduratuko gara, eta joskintzako profesionalak izango lirateke guretzat lan egingo luketenak, betiere kalitateak eta akaberak zainduz. Asko axola zaigu marka nazioartekotzea, uste baitugu gure bezero potentziala beste herrialde batzuetan egon daitekeela, beste modu batera kontsumitzeko ohitura duten herrialdeetan.

Oier: Oso interesgarria iruditzen zaigu joskintzaren sektorean lan aukerak sortzea, azken urteotan sektore horretan lanpostu asko galdu direla uste baitugu. Oso ideia ona iruditzen zaigu gure tailerrari esker, egun jakin batean bizimodua ateratzeko beste irtenbide bat bilatu behar izan zuten hemengo jostunei lana eskaini ahal izatea.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Udagazte 2022

Aurten Gaztelekuko kideak Martindozenea eraikinean geldituko dira uda igarotzera. Izan ere, irteera, ekintza eta tailerrez betetako UdaGaztea prestatu dute gazteentzako!

Gogoratu UdaGazteko irteeretan parte hartzeko baimen orria betetzea beharrezkoa izango dela.

Izena ematea beharrezkoa den ekintzetan bide hauen bitartez egin beharko da: Gaztelekuan bertan edo Whatsappera idatzita (690706471), Instagramera (/gazteleku_irun) edo korreora (gazteleku@irun.org) mezu bat bidaliz.

- Uztailak 15: Surf + Igeldo atrakzio parkea

Ordua:11:30-20:30

Tokia: La Salleko autobus geltokia (Elizatxo Hiribidea, 14)

Prezioa: 10,90€

- Uztailak 18: Gofreak + Irabiatu tailerra

Ordua:17:30

Tokia: Martindozenea Gaztelekua

– Uztailak 19: Artzuko errotara irteera

Ordua:11:00-19:00

Tokia: Colóneko topo geltokia

Prezioa: doakoa

– Uztailak 20: Graffity tailerra

Ordua:17:30

Tokia: Martindozenea Gaztelekua

– Uztailak 21: Sudaderak kustomizatzeko tailerra

Ordua:17:30

Tokia: Martindozenea Gaztelekua

- Uztailak 22 eta 23: Gazte akanpada

Ordua: uztailak 22-11:00etan-uztailak 23ko 12:00ak aldera itzulera

Tokia: Palmera Montero Gunea

Prezioa: doakoa

- Uztailak 26 eta 27: Skate taulak bertziklatzeko tailerra

Ordua:17:30

Tokia: Martindozenea Gaztelekua

Prezioa: dohakoa

- Uztailak 28: Santa Klara irlara irteera

Ordua:10:30-19:00

Tokia: La Salleko autobus geltokia (Elizatxo hiribidea, 14)

Prezioa: doakoa

-Uztailak 29: Agur festa

Ordua:17:00-20:00

Tokia: Martindozenea Gaztelekua

“Erosi eta ikasi” programa

Irungo Udalak “Erosi eta Ikasi” programaren bederatzigarren edizioa prestatu du. Programaren helburua da sustatzea familia irundarrek ikasmaterialak hiriko dendetan erosi ditzatela. Eskabideak uztailaren 4tik irailaren 30era aurkeztu ahalko dira. Programaren edizio honetarako aurrekontua 200.000 eurokoa da.

Norentzat: Uda honetako programa Irunen erroldatutako umeak dituzten familiei zuzentzen zaie. Derrigorrezko Hezkuntzan (Lehen Hezkuntza eta DBH) daudenak dira hartzaileak.

Diruz lagunduko diren gastuak: Ez dira aldatzen eta berberak izango dira; idazteko materialak, suntsikorrak edo ez suntsikorrak, hala nola koadernoak, orriak eta abar, sailkagailuak, estutxeak, kalkulagailuak, konpasak, bizkar-zorroak, testu-liburuak eta abar. Ikastetxeetako uniformeak edo Gorputz Hezkuntzarako arropa zein oinetakoak, eskulanetako elementuak, Arte Hezkuntza, Hezkuntza Plastikoa eta Bisuala, Teknologiak edo Musika (argizariak, olioak, margoak, pintzelak). Hor sartzen dira baita ere COVID-19 pandemiak ikastetxera joateko derrigorrezko bihurtu dituen elementuak ere, alegia, maskarak eta hidrogelak.

Epeak: Diruz lagundu ahal izango diren gastuak eskola-materialak erosteagatik sortuak izango dira, eta betiere Irungo saltokietan edo ikastetxeetan erosiak 2022eko ekainaren 22tik irailaren 30era bitartean.

Dirulaguntza horiek emateko, iaz bezala, hiru tarte egongo dira, eta tarte horiek errentaren araberakoak izango dira; hau da, familiak duen diru-sarreren arabera baliteke norbait deialditik kanpo geratzea, eta laguntzaren zati bat kobratu ahalko dutenak eta % 100 jasoko dutenak ere izango dira. Zenbatekoak handitu egin dira, eta tarte bakoitzeko laguntzak 25 euro handiagoak izango dira aurreko ekitaldikoak baino: 150, 125 edo 100 euro.

Hezkuntza zerbitzuak gogorarazten du egiten diren erosketen fakturak gorde egin behar direla, izan ere, eskaera egiteko unean aurkeztea beharrezkoa den bezala, prozesuan zehar ere eskatu daitezke.

Eskaera egiteko prozedura sinplifikatu egin da, familientzat tramitea egitea errazagoa izan dadin

EROSI eta IKASI IRUNEN



UZTAILAREN

21ean

Dantza

Zer: Netos de Bandim Kultur Taldeak, auzoko haur eta gazteen integrazio soziokulturala errazteko sortu zenak, Ginea Bissauko musika eta dantza tradizionalak erakutsiko ditu.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doan.

23an

Zinema

Zer: Santiago Seguraren “Padre no hay más que uno 2” filmaren emankizuna.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doan.

Hizkuntza: Gazteleraz.

Iraupena: 96 minutu.

25ean

Musika

Zer: Irun Hiria Musika Bandaren eskutik, Santiagoko polken kontzertua.

Non: Santiago kalean.

Ordua: 12:30ean.

Prezioa: Doan.

27an

Bertsoak

Zer: Munduari lehen itzulia ospatzeko ekitaldien barruan eta Elkano Itsas Herria proiektuaren eskutik, itsas gaiari buruzko bertso saioa.

Non: Junkal plazatxoan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doan.

29an

Magia tailerra

Zer: Magia tailerra 5 eta 12 urte bitarteko haurrentzat, Aritz Petrikorena eta Javier Aguirre magoen eskutik. Tailerrak magia erakustaldi batekin amaituko dira.

Non: Pio XII plazan.

Ordua: 18:00etatik 20:30era.

Prezioa: Doan.

Hizkuntza: Euskaraz.

29an

Bakarrizketa

Zer: Óscar Terol “Mundos para lelos” ikuskizunean pertsona guztiontzat ulertezina den mundu baten errealitatea erakusten du.

Non: San Martzialeko Bigarren Batailaren Bimendeurrena Plaza.

Ordua: 22:00etan.

Prezioa: Doan.

Hizkuntza: Gazteleraz.

Denbora-pasen emaitzak

P	R	X	S	T	T	P	W	Y	C	K	C	B	Y
C	U	I	Z	X	D	S	E	J	R	K	L	D	I
B	K	Q	J	L	H	C	Q	D	L	I	M	O	I
B	V	T	X	O	K	O	L	A	T	E	A	Z	M
P	Y	M	P	V	Q	I	K	T	O	E	M	T	Y
W	J	O	O	U	R	T	G	S	Z	Z	A	H	A
O	T	Y	E	R	D	B	I	J	O	C	R	U	Y
T	R	I	W	I	H	A	N	Y	Z	W	R	R	Y
Y	S	C	V	K	R	N	E	Z	B	W	U	Q	B
O	H	U	H	X	O	I	I	A	U	T	B	D	L
H	V	Y	L	R	A	L	O	O	H	R	I	F	Z
J	Z	L	K	W	P	L	A	G	F	R	M	A	G
E	P	M	H	F	F	A	K	I	R	Z	S	G	I
Z	F	O	P	I	S	T	A	T	X	O	A	D	E

9	7	2	5	8	3	6	4	1
1	3	8	4	6	9	5	7	2
5	4	6	1	2	7	8	3	9
8	6	3	9	1	4	7	2	5
4	1	5	8	7	2	3	9	6
2	9	7	6	3	5	4	1	8
7	5	4	2	9	6	1	8	3
6	8	9	3	4	1	2	5	7
3	2	1	7	5	8	9	6	4

IRUNGO EUSKALJIRA

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Irungo Euskal Jira '22

Abuztuak 5 | 6 | 7

Egilea: **Karina Aguirre.** XIII Irungo Euskal Jira argazki lehiaketako lehen saria.

IRUNGOEUSKALJIRA.COM